



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

Mahatsaren iturria



SARIA:
Lesakako
BEKO mintegian
60 euroko
erosketa

2022ko APIRILA

177. ALEA

IRAKURLAN

ARDOGINTZA

Duela urte batzuk landu genuen Etxetik Plazara aldizkari honetan, Nafarroako ardoaz azpimarra eginda. Ale honetan, Euskal Herriko ardoen inguruan ariko gara, Baztango arnoaz ere zertzelada batzuk emanen ditugu eta ardoaren ekoizpenaren prozesua ere ezagutuko dugu.

Euskal Herriko ardogintzaren historiaurrera jo behar da. I. mendean, ardoa egiten zela dokumentatua dago, erromatarrek modu industrialean egiten zuten eta bertako biztanleei erakutsi zieten. Historian zehar, mahastiak hedatzen joan ziren; ardogintzak hobekuntzak noziturik, jarduera ekonomikoan garrantzi handia lortu du.

Historiaz gain, aipamen berezi bat egin behar diogu ardoaren sinbolismoari; izan ere, ardoak lotura handia du munduko erlijioekin. Batzuetan, bere kontsumoa debekatua edo gutxietsita dago. Hala ere, bertze batzuetan, bertze erranahi batzuk ditu; esaterako, Ekialde Hurbileko erlijio txiki batzuetan, mahatsondoa heriotzaren eta berpizkundearen sinboloa da bai bere izaeragatik, bai urtaroetan zehar hazteko moduagatik. Bertze erlijio batzuetan, mahats gorriak eta ardoaren kolorea odolarekin lotzen dira; ondorioz, ardoa jainkoentzako eskaintza sakratutzat hartzen da. Horren ildotik, juduen fedean, edari santua da, eta ugalkortasunarekin ere lotzen da.

Geurera bueltatuta, erranen dugu Euskal Herriko ardoak sei sor-markatan banatuta daudela, eskualde eta ezaugarrien arabera: Nafarroa Garaiko ardoa (5 azpi-zonaldetan banatuta); Araban, Errioxako ardoa eta Arabako txakolina; Bizkaian, Bizkaiko txakolina; Gipuzkoan, Getariako txakolina; Nafarroa Beherean, Irulegiko Arnoa; eta, Nafarroa Garaira bueltatuz, Errioxako ardoa. Ardo mota anitz daude, guztiak aipatzea ezinezkoa denez, famatuenarekin geratuko gara hainbat datu emateko: Errioxakoa.

Errioxako ardoa sor-marka duen ardoa dugu; Errioxako Autonomia Erkidegoko, Nafarroa Garaiko eta Arabako hainbat upeltegitan egiten da. Penintsulako hoberenatarikoen artean dugu eta mundu osoan ere aspaldi honetan ospetsu bilakatu da. Hedapenari dagokionez, 57.000 hektarea mahasti ditu, eta, urtero, 250 miloi bat litro ardo ekoizten ditu, horietatik %85 beltza da. Errioxa Garaia eta Beherearekin alderatuz, Arabako Errioxako ekoizpenak zenbait berezitasun ditu, nagusiena eskala txikiko ekoizle eta lursail txikietan sortzen direla. Hori dela eta, zenbait ekoizle, Errioxako markatik desberdindu nahian, Arabako Errioxa marka Errioxa markaren pare jartzen saiatu dira, baina sor-markako arduradunek debekatu egin dute. Gatazka horrek azken urteetan gertakari anitz izan ditu eta etorkizunean ere izanen ditu.

Errioxako ardoak eta, orokorrean, ardo guztiek hilabete hauetan ere bertze erronka handi bati heldu behar izan diote, Europako legealdiak botiletako etiketetan tabakoaren paketeetan ezartzen diren mezuei informatiboaren betebeharra arautu nahi izan du (ardoaren kontsumoak minbizia garatzen areagotzen duelako informazioa). Ardogintzaren sektore guztiak aurka agertu dira eta momentuz ez du aurrera egin. Ikusiko da mahatsaren mama goxoek etorkizunean nondik nora jotzen duten eta zenbat gatazkari aurre egin beharko dioten.



HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA

Euskaltzaindiak bere 25. arauan hitz elkartuen osaera eta idazkera ezartzen ditu, eta jarraibideak, azalpenak, salbuespenak... zehazten ditu. Arau horretan, marratxoarekin idatziko direnak ere zehazten dira. Gure testuan hitz elkartuen adibide horietako batzuk agertzen zaizkigu (sor-marka, ehiztari-biltzaile, zuri-berde) eta, horietaz baliatuta, azalpen eta lanketa bat proposatu nahi dizugu. Hitz-elkarketako marratxoa ahalik eta gutxien erabiltzeko hautua eginez gero ere, kasu hauetan erabili behar da:

1.-BIKOIZPENAK: gorri-gorri, berri-berri, ozta-ozta, dagoen-dagoenean, blai-blai, astiro-astiro. Lehen osagaia kasu-atzizkirik gabe doa. Salbuespenak: etxez etxe, etxerik etxe...

2.-BIKOIZPENAK, bi osagaiek atzizki bera dutenak: apurka-apurka, banaka-banaka, aldian-aldian, bat-batean...

3.-Seme-alabak eta zuri-gorri modukoak: senar-emazteak, neba-arrebak, galde-erantzunak, neska-mutilak, izen-deiturak, zuri-gorri, luze-zabal, han-hemenka, ezker-eskuin, gora-behera, gutxi-asko...

4.-Plisti-plasta, zehatz-mehatz, handi-mandi, tarteka-marteka... bezalakoak. Bigarrena lehenaren oihartzuna da.

5.-Anbiguotasuna gainditzeko: emakume sendagile (sendagile den emakume medikua); emakume-sendagilea (emakumeen medikua); basurde ehiztaria (nolako basurdea); basurde-ehiztaria (basurde-harrapaketan dabilena).

6.-Herri izenak: marratxoa dagokie leku-izen hauei: Ezkio-Itsaso, Gernika-Lumo, Maule-Lextarre... baina bi hizkuntzatan ageri direnean, ordea, ez. Orduan, zehar-marra erabiliko da: Lizarra/Estella; Gasteiz/Vitoria...

Orain, zure txanda: adibide hauetan marratxoa ongi erabili dugun (ea soberan edo faltan ipini dugun) erran behar diguzu, ongi ala gaizki dagoen zehaztuz.

ONGI GAIZKI

☐	☐
☐	☐
☐	☐
☐	☐
☐	☐
☐	☐
☐	☐
☐	☐

1.- Gure anaia arrebak lan-bila ari dira.

2.- Mendian ginenean, bat-batean, ekaitza lehertu zen.

3.- Ekaitzaren ondorioz, blai blai etxeratu ginen

4.- Gure ikasleak batzuetan asper-asper eginda sumatzen ditugu,

5.- Aiton-amonek gure seme-alabak besoak zabal-zabalik hartzen dituzte.

6.- Oporretan, uztailean, Gernika/Lumora joanen gara eta, abuztuan, Lizarra-Estellera

7.- Gure postaria kalean gora behera eta etxez-etxe ezker eskuin ibiltzen da.

8.- Krisialdiaren ondorioz, biztanle gehiengoaren osasun-egoera okertu da eta diru-arazoak areagotu dira.



LAN eta LAN

MAHATSETIK ARDORA

Modu sinplifikatuan bada ere, hurrengo lerrootan, ardoa nola egiten den azalduko dugu pausoz pauso. Baina, lehenbiziko, kendu ditugun hitzak testuan txertatu beharko dituzu, bertzenaz, ez duzu prozesua ongi ulertuko!

a. gero
b. zukua


c. prest
d. hala

e. enologo
f. lehenbiziko

g. alea
h. zanpatuta

i. azkenik
j. ondoren

1.(1)...., mahatsa bildu behar da.
2. Ondotik, fruituaren(2).... banatu eta txortena kendu behar da.
3. Hurrengo urratsean, mahatsak zanpatu eta mahatsaren(3).... edo muztioa aterako dugu.
4. Behin fruitua(4)...., zukuaren hartzidura alkoholikoa gertatzen da. Prozesu biokimikoa da: legamiaren eraginez, muztioaren azukreak degradatu eta transformatu egiten dira.(5)...., muztioa alkohol etiliko eta karbono dioxidoa bihurtzen da.
5.(6)...., ardoa iragazi egiten da, zikinkeriak kendu eta garbi egoteko.
6. Iragazi(7)...., edari alkoholikoa ontzeko, kupelean sartzen da.
7. Prozesu horretan,(8).... batek hartuko dio puntua ardoari eta hark kontrolatuko du ontze-prozesua.
8.(9)...., ardoa botilatu eta bigarren ontze-prozesua izanen du botilan.
9. Orain bai! Edateko(10)....!



BITXILOREAK



Bertze behin ere, Iruñea da inflexio puntu Nafarroa Garaiko iparra eta hegoa banatzeko orduan. Kasu honetan, Etxetik Plazara ale honetako(1).... erreparatzen badiogu, hiriburu historikoa da ardoaren ekoizpen eremua markatzen(2)....: Iruñetik beheiti, ardogintza oparoa dago; eta, goiti, berriz, aski urria. Hala, Erriberan, Lizarrerrian, Erriberrin... mahasti eta upategi andanarekin eginen dugu topo, errate baterako: Lezaun, Mendiko, Bardea, Azpea... Gainera, nabarmendu nahiko(3).... horiek guziek ekologikoan ekoizten dutela.

Geure lurretan kokatu eta ingurura begiratzen badugu, aldiz, ez dugu mahasti eta upategi(4).... harrapatuko: Nafarroa Beherean, Irulegiko arnoa; Gipuzkoako kostaldean, txakolina; eta, Baztanen, orain(5).... ia 10 urte sortzen hasi ziren ardo xuria.

Baina, toponimiari erreparatuz gero, badirudi geurean(6).... mahastigintzak leku handiagoa izan zuela garai batean. Hala ematen dute aditzera behinik(7)...., honako izen hauek: Mastegi Lesakan, Matzada Beran, Matzondegiko lepoa Baztanen... Egia da sagarrak eta sagardoak presentzia puskaz handiagoa izan duela eta baduela gure eskualdean, baina, hala ere, mahatsaren eta ardoaren(8).... mugimendua egon dela erraten ahal dugu.

Baztango Xurie. Halaxe(9).... Arizkunen egiten duten edari alkoholiko preziatuari. Bertako klima atlantikora egokitze asmoz, halako baldintzetan ongi moldatzen(10).... mahatsondo-landaketak dituzte: Hondarribi Zuri, txakolina egiteko erabiltzen(11)....; Izkiriota Handia eta Ttikia, Irulegiko arnoan erabiltzen dena; eta Riesling mahatsa. Mahastiak modu ekologikoan lantzen dituzte, eta, lortutako zukua ardotzeko, upeltegia edo bodega martxan paratzen ari dira.

Beraz, ezin erran geurean ere ardorik ez(12).... Akaso, poliki-poliki bide berria ireki eta gero eta ohikoago bihurtuko da Nafarroa Garai iparraldeko ardoa. Ikusiko dugu!

ERNE, SARIRAKO!

- | | | | |
|---|---|---|--|
| 1. a) gaiari
b) gaia
c) gaiak | 2. a) duela
b) duena
c) duen | 3. a) genuke
b) genituzke
c) genukeen | 4. a) aunitzerik
b) aunitzik
c) aunitzez |
| 5. a) da
b) duela
c) dela | 6. a) ere
b) ere bai
c) baita ere | 7. a) bederen
b) behintzat
c) behin | 8. a) buruz
b) inguruan
c) gain |
| 9. a) deritze
b) deritzo
c) deritzote | 10. a) den
b) diren
c) duten | 11. a) dena
b) dela
c) denik | 12. a) dagoenik
b) dagoen
c) dago |



HITZ GURUTZATUAK


Ardoarekin eta ardogintzarekin lotura duen hitz pila bat ikusi dugu ale honetan. Hori dela eta, hiztegi hori guzia hobeki barneratzeko, ariketatxo hau prestatu dizugu denbora-pasa modura. Guk definizio batzuk eman ditugu hemen behean, eta zuk horiei dagozkien hitzak asmatu eta gurutzegraman sartu beharko dituzu. Ea zer moduz!

EZKER-ESKUIN

2. Mahatsondoak landatuta dauden lursaila.
3. Ardoa lantzen den eta ardogintzako gainerako lanak egiten diren lekua.
4. Fruitu gisa mahatsa ematen duen landare bizikor eta igokaria.
7. Ardoaren jatorria eta kalitatea kontrolatu eta arautzeko sistema batek bermatzen duen eskualde mugatu bat babesten duen izendapena.
8. Ardo hitzaren sinonimoa, Ipar Euskal Herrian erabiltzen dena.
9. Hartzidura alkoholikoa eragiten duen mikroorganismo zelulabakarra.
10. Ardoaren zikinkeriak kentzeko egiten den akzioa.

GAIN-BEHERA

1. Mahatsen zuku edo muztiotik ardoa lortzeko egiten diren eragiketa enologiko guztien multzoa.
5. Fruta zanpatuta ateratzen den edaria.
6. Mikroorganismo batzuen entzimen eraginez substantzia organikoak oxidatzen diren eta energia askatzen den prozesua.



ERANTZUNAK

LAN eta LAN (3. or.):

1.- Gaizki (anai-arrebak); 2.- Ongi; 3.- Gaizki (blai-blai); 4.- Ongi; 5.- Ongi; 6.- Gaizki (Gernika-Lumo, Lizarra/Estella); 7.- Gaizki (gora-behera, etxez etxe, esker-eskuin); 8.- Ongi

LAN eta LAN – Mahatsetik ardora (4. or.):

1- f; 2- g; 3- b; 4- h; 5- d; 6- a; 7- j; 8- e; 9- i; 10- c

JOLAS-NAHAS (6. or.):

1. ardogintza; 2. mahasti; 3. upategi; 4. mahatsondo; 5. zuku; 6. hartzidura;
7. sor-marka; 8. arno; 9. legami; 10. iragazi

176. aleko sarirako ariketaren erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- c; 2- e; 3- a; 4- l; 5- k; 6- d; 7- g; 8- i; 9- j; 10- b; 11- f; 12- h

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

177. aleko SARIA:

**Lesakako BEKO mintegian
60 euroko erosketa**

176. aleko irabazlea:

**Estitxu Echarte Mikelestorena
Etxalarkoa**

**ETXETIK PLAZARA
liburua, DEBALDE!!**

**Eska ezazu,
Bortziriak edo Malerrekako
IKA euskaltegietan**



<http://etxetikplazara.ivoox.com>

OHARRA: erantzunak maiatzaren 6a baino lehen bidal itzazu.




SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 177 (2022/04)



ika

euskara errazago egiten



POEMARIA

*Biharkoak zer dizun gorderik ez dakizunez,
saia zaitez gaur zoriontsu izaten. Har ezazu
txarro bat ardo, ilargiaren argipean eser zaitez
eta edan ezazu pentsatuz agian bihar ilargia
alferrik arituko zaizula bila.*

*Edan ezazu zeure ardoa! Bizitza eternala erdietsiko duzu.
Ardoa da gaztetasuna berpiztuko dizun gauza bakarra.
Arrosen, ardoaren eta lagun onen garai zorionekoa!
Zure bizitza den une iheskor horrexekin goza ezazu!*

*Kondenaturik izanen direla ardozaleak entzuten dut esaten.
Ez daude egia frogatuak, baina badira begi-bistako gezurrak.
Ardozaleak eta amodiozaleak Infernura baldin badoaz,
hutsik dagoke Paradisua.*

*Ardoa edaten dut sahatsaren sustraiak iturriko
ur gardena edaten duen moduan.
Jainkoa bakarrik da jainkoa, eta berak dena daki –hori diozu?–
Sortu ninduenean, bazekien nik ardoa edango nuela.
Edateari uko egingo banio,
jainkoaren jakinduriak huts egingo luke.*

RUBAIYATak liburutik (**Omar Khayyam***)

Itzulpena: Joxemari Iturralde

*(1048-1131) Matematikari, filosofo, astronomo, mediku eta poeta persiarra.

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

Joseba Larratxe

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria
Mathilde Brugiére-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

